



BilboShop

B I L B O B I Z I

Proiektuaren aurkezpena

Proiektuaren izena: **BilboShop**

BilboShop interneten oinarritutako plataforma bat da eta haren helburu nagusia Bilboko merkataritza txikia sustatzea da. Horretarako Bilboko denda txikiei interneten bidez salmentak egitea ahalbidetuko die. Gure plataforma, funtsean, online denda bat da non gure zerbitzuetara harpidetutako denden produktuak saltzen diren. Plataformaren bidez egindako salmenten inguruko prozesu guztiak, online ordainketak eta produktuen bidalketak gehien bat, guk koordinatuko eta kudeatuko ditugu.

Interneten bidezko salmentaz aparte, marketing aholkularitza zerbitzuak ere eskainiko ditugu. Zerbitzu honetara harpidetutako dendei, marketing arloko aholkularitza emango diegu, haien jendaurreko itxura hobetzeko eta eguneratzeko. Horrez gain eta marketing arlotik jarraituz, diseinu grafikoko zerbitzuak eskainiko ditugu, logotipoak, publizitate materialak, web orrialde pertsonalizatuak eta bestelakoak diseinatuz.

Egileak: GALTAGAPA taldea (IES Urbi BHI),

Gorka Padilla

Jone Galindez

Jon Gallego

Iker Tapia



Proiektuaren eredua garatu dugu eta interneten dago erabilgarri, ezin dira erosketak burutu baina plataforma ikusi daiteke egitasmoa guztiz ulertzeko:

www.bilboshop.es

